



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena

Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa

Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriak 1

Vitoria-Gasteiz, 1 de octubre de 2019

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

**EUSKO JAURLARITZAK BAZTERTU EGIN DU, DESEGOKIA
IZATEAGATIK, EH BILDUK ETA ELKARREKIN-PODEMOSEK MEMORIA
HISTORIKOARI BURUZ AURKEZTUTAKO EKIMENA IZAPIDETZEA**

- **Eusko Jaurlaritzak ekimena proposatu duten bi legebiltzar-taldeei gogorarazi dienez, erakunde guztiek memoria historikoaren arloan egindako legeak eta dekretuak kontuan hartu gabe aurkeztu dute beren arau-proposamena**

Gobernu Kontseiluak EH-BILDU eta ELKARREKIN-PODEMOS legebiltzar-taldeen bultzatutako *Euskal Memoria Historikoaren Lege Proposamena* aintzakotzat hartzearen aurkako irizpidea adierazi du gaur.

Eusko Jaurlaritzak, lehenik eta behin, gogorarazi du dagoeneko *Euskadiko Memoria Historiko eta Demokratikoaren Lege Proiektu* bat lantzen ari dela, eta asmoa bat datorrela bi legebiltzar-talde horiek erregistratutako ekimenarekin. Lege-proiektu hori memoria historikoaren arloan inplikaturako gizarte-eragile guztien ahalik eta parte-hartzerik handiena bilatuz izapidetzen ari da.

Ildo horretatik, Eusko Jaurlaritzak kritikatu du ekimena proposatu duten bi legebiltzar-taldeen eragozpenak eta defizitak jasotzen dituen arau-proposamen bat aurkeztu izana; izan ere, adibidez, ez ditu kontuan hartu Memoria Historikoarekin eta Gerra Zibilaren eta diktadura frankistaren biktimekin zerikusia duten hainbat alderdi arautzen dituzten eta jada existitzen diren lege eta dekretuak. Adibidez:

- ✓ *Eusko Legebiltzarraren 04/2014 Legea, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua (Gogora) sortzekoa.*
- ✓ *Eusko Jaurlaritzaren 107/2012 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoan 1960tik 1978ra bitartean motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa.*
- ✓ *Estatuko 52/2007 Legea, Gerra Zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak onartzen eta zabaltzen dituen, eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen.*
- ✓ *1803/2008 Errege Dekretua, demokraziaren defentsan jarduteagatik hil ziren edo ezintasuna eragin zieten lesioak jasan zituzten pertsonen aldeko kalte-ordainak (aurreko legean aitortuak) ordaintzeko baldintzak eta prozedura arautzekoa.*

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

GOBERNUAK ADIMEN-DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEK ENPLEGU PUBLIKORA JO DEZATEN SUSTATZEKO JARDUN-ILDOAK ONETSI DITU

- Helburua da Euskadiko Administrazio Orokorrean eta erakunde autonomoetan % 33ko edo gehiagoko adimen-desgaitasuna duten pertsonen % 2ra iristea
- Eusko Jaurlaritzak, horrela, tratu-berdintasuneko eta bazterketarik gabeko baldintzetan lanera jotzeko duten eskubidea bermatuko du

Gaurko Gobernu Kontseiluak adimen-desgaitasuna duten pertsonen enplegu publikora jo dezaten sustatzeko eta bermatzeko jardun-ildo orokorrak onetsi ditu. Helburua da Euskadiko Administrazio Orokorrean eta erakunde autonomoetan % 33ko edo gehiagoko adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako plaza publikoen % 2ko erreserba betetzea.

[“2020rako Enplegu Plan Estrategikoaren”](#) esparruan, Gobernu Kontseiluak, jardun-ildo berezi horien bidez, Euskal Administrazio Publikoan dagokien lekua eman nahi die adimen-desgaitasuna duten pertsonen, eta tratu-berdintasuneko eta bazterketarik gabeko baldintzetan lanera jotzeko duten eskubidea bermatu nahi die.

JARDUN-ILDOAK

Gaur onetsitako neurriek prozesu osoa hartzen duen jarduketa integrala dakarte: lanpostu egokienak identifikatzea; hautaketa-prozesua egokitzea; harrera, orientazioa eta zaintza egitea, dagokien lanpostuetan daudenean. Zehazki, 8 lan-ildo berezi dira:

- ✓ Kolektibo horiekin lanean diharduten elkartekin lankidetzan jardutea, enplegu publikora sar daitezen eta beren erabateko lan-integrazioa sustatzeko.
- ✓ Profilerak egokitzen diren lanpostuak, egokitzapenen beharra eta postuan egin beharreko egokitzapenak aztertzea.
- ✓ Kolektibo horrentzako adskripzio eskusiboko lanpostuak sortzea eta, horretarako, Lanpostuen Zerrenda aldatzea.
- ✓ Kolektiboaren behar berezietara egokitutako hautaketa-prozesuak diseinatzea.
- ✓ Lanpostuak aldi baterako betetzeko lan-poltsa deitzea.
- ✓ Lanpostuetara jotzen duten pertsonen prestakuntzarako, laguntzarako edo tutoretzarako hasierako fasea diseinatzea.
- ✓ Lan-poltsen araudi erregulatzailerak egokitzea.
- ✓ Haiek behin betiko betetzeko enplegu-eskaintza publikoa egitea eta hautaketa-prozesuak deitzea.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

EUSKO JAURLARITZAK 3.4 MILOI EUROREN LAGUNTZAK ONARTU DITU NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN ETA BASOGINTZAREN SEKTORERAKO 2019AN

- **Mahastizaintza eta ardogintzaren sektoreko inbertsioak finantzatzera, elkartegintza laguntzera eta apikultura sustatzera bideratuta daude baliabideak**
- **Sektore primarioko lan baldintzak eta elikaduraren balio kate osoaren lehiakortasuna hobetzeko exekutibo autonomoak duen politikaren zatia dira**

Nekazaritzako elikagaien eta basogintzaren sektorerako laguntzak iragartzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak emandako hiru agindu onartu ditu Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak. Orokorrean, 3,4 milioi euro inguru dira laguntzak 2019rako. Mahastizaintza eta ardogintzaren sektoreko inbertsio proiektuetara bideratutako diru kopurua da handiena, eta proiektu horien finantzaketarako 2.800.000 euro erabiliko dira.

Laguntza honen onuradunak izan daitezke OCM vino inversion programaren 2018ko eta 2019ko deialdietan parte hatu izana egiaztatzen duten mahastizaintza eta ardogintzako enpresak.

Finantzaketa elkarreentzat

Era berean, nekazaritzako eta basogintzako ekoizleen elkarreak edo erakundeak sortzeko eta horien batasunak eta federazioak eratzeko Landa Garapeneko 2015-2020 Programaren barruan aurreikusten diren laguntzak 2019ko ekitaldirako iragartzeko emandako Agindua ere onartu du Kontseiluak.

Aurtengo urterako aurreikusitako laguntzen finantzaketarako 500.000 euro erabiliko dira.

Apikulturaren sektorea

Bukatzeko, bilera berean onartu da Euskal Autonomia Erkidegoko apikulturaren sektorearentzako laguntzak iragartzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak emandako agindua. 2019an, 50.930 euro bideratuko dira laguntza horietara, FEAGaren kontura.

Ogasun eta Ekonomia

EUSKO JAURLARITZAK MODU ZENTRALIZATUAN KONTRATATUKO DU ENERGIA-ITURRI BERRIZTAGARRIETATIK ABIATU %100EAN SORTUTAKO ENERGIA ELEKTRIKOA

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du energia-iturri berriztagarrietatik abiatu %100ean sortutako energia elektrikoaren horniduraren kontratazio zentralizatua, EAEko Administrazio Orokorraren, bere sektore publikoaren hornidura-puntuetarako. Horren helburua da Euskal Administrazio Publikoa energiaren aldetik eraginkorragoa eta jasangarriagoa izan dadin sustatzea, eta energia elektrikoaren horniduraren kudeaketa arrazoizkoagoa lortzen saiatzea.

Kontratazio horri dagokion gastua 73.507.586 eurokoa da guztira, eta urte anitzeko banaketa hau du:

2020: 36.753.793 €.

2021: 36.753.793 €.

Euskadiko Energia Estrategiak energiaren aldetik eraginkorragoa eta jasangarriagoa izango den Euskal Administrazio Publikoa sustatu nahi du. Helburu horrekin, energia elektrikoaren gastua aurrezteko neurrietako bat da energia elektrikoaren hornidura kontratatzeke garaian kudeaketa eraginkorra lortzea; kontuan hartuta, gainera, euskal administrazioetako energia elektrikoaren kontsumoa, gutxi gorabehera, Euskadiko zerbitzuen sektoreko kontsumoaren % 30 dela.

Azken batean, energia elektrikoaren erosketa zentralizatua tresna egokia da EAEko sektore publikoak bere eraikin eta instalazioetan bere gain hartzen dituen prezioak optimizatzeko.

2008 ezkerro, Euskal Administrazio Publikoak iturri berriztagarrietatik sortutako energia hornitzea sartu du kontratuaren xedean, eta, gaur egun, hornidura % 100ean energia berriztagarriekin egitea gauzatze-baldintza berezia da.

Osasuna

OSASUN SAILAK 79.000 EURO BIDERATU DITU OSASUNAREN ARLOKO ERAKUNDE PROFESIONAL, ELKARTE ETA ENTITATE ZIENTIFIKOENTZAKO LAGUNTZETARA, OSASUN PROFESIONALAK PRESTATZEKO

Gobernu Kontseiluak, Osasun Sailak proposatuta, onartu egin du guztira 79.409 euroko laguntzak ematea. Horien helburua da dirulaguntzak ematea, batetik, 2019an Euskal Autonomia Erkidegoan antolatzen diren osasunaren arloko prestakuntzako eta zientzia-hedapeneko jarduerak egiteko, eta, bestetik, osasun-espezialitateetako erakunde profesionalak eta entitate zientifikoak eratu eta abiarazteko, osasun-profesionalak etengabe presta daitezten.

Osasun Sailarentzat garrantzitsua da lankidetzan aritzea osasun-profesionalak prestatu eta teknikoki eguneratuko dituzten osasunaren arloko irabazi-asmorik gabeko elkarteekin eta erakunde profesionalekin, baita osasun-espezialitateetako irabazi-asmorik gabeko entitate zientifikoekin ere. Hain zuzen, osasun-langileak trebatzeak eta horiek etengabeko prestakuntza-prozesuetan parte hartzeak eragin berezia dute biztanleriarentzako osasun-arreta egokian, eta gaixotasunak jotako pertsonen osasuna eta ongizatea hobetzen dute.

Hala, laguntza horiek honako ekintza hauen ondoriozko gastuak finantzatzera bideratuko dira:

1. Aurten EAEn egiten diren bilera zientifikoak antolatzea. Halakotzat ulertuko dira osasuneko profesionalen zuzendutako biltzarrak, sinposioak, jardunaldiak, mintegiak, hitzaldiak, ikastaroak eta lantegiak. 47.645 euroko zuzkidura ekonomikoa izango dute.

2. Eratzea edo abian jartzea osasunaren arloan lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko elkarteak eta erakunde profesionalak, baita osasun-espezialitateetako irabazi-asmorik gabeko entitate zientifikoak ere, beren profesionalak prestatu eta teknikoki eguneratzen dituztenak edo osasun-ikerketan sustatzen dutenak. Laguntza 31.764 eurokoa izango da.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO RECHAZA, POR INCOVENIENTE, LA TRAMITACIÓN DE LA INICIATIVA DE EH-BILDU Y ELKARREKIN-PODEMOS SOBRE MEMORIA HISTÓRICA

- **El Gobierno recuerda a los dos grupos parlamentarios proponentes de la iniciativa que han presentado una propuesta normativa sin tener en cuenta las leyes y decretos ya existentes en materia de Memoria Histórica**

El Consejo de Gobierno ha manifestado, hoy, criterio desfavorable a la toma en consideración de la *Proposición de Ley de Memoria Histórica Vasca* impulsada por los grupos parlamentarios EH-BILDU y ELKARREKIN-PODEMOS.

En primer lugar, el Gobierno Vasco recuerda que está ya elaborando un *Proyecto de Ley de Memoria Histórica y Democrática de Euskadi* cuya intención es coincidente con la iniciativa registrada por estos dos grupos parlamentarios. Este proyecto de ley se está tramitando de manera que procure la máxima participación de todos los agentes sociales involucrados en materia de Memoria Histórica.

En este sentido, el Gobierno Vasco critica que los dos grupos proponentes de la iniciativa hayan presentado una propuesta normativa que contiene inconvenientes y déficits porque, por ejemplo, no ha tenido en cuenta las leyes y decretos ya existentes que regulan diversos aspectos relacionados con la Memoria Histórica y las víctimas de la Guerra Civil y la dictadura franquista. Por ejemplo:

- ✓ *Ley del Parlamento Vasco 04/2014 de Creación del Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos (Gogora).*
- ✓ *Decreto del Gobierno vasco 107/2012 de declaración y reparación de las víctimas de sufrimientos injustos como consecuencia de la vulneración de sus Derechos Humanos producida entre los años 1960 y 1978 en el contexto de la violencia de motivación política vivida en la CAE.*
- ✓ *Ley estatal 52/2007 por la que se reconocen y amplían derechos y se establecen medidas en favor de quienes padecieron persecución o violencia durante la Guerra Civil y la dictadura.*
- ✓ *Real Decreto 1803/2008 por el que se regulan las condiciones y el procedimiento para el abono de las indemnizaciones (reconocidas en la ley anterior) a favor de personas fallecidas o con lesiones incapacitantes por su actividad en defensa de la Democracia.*

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO APRUEBA LAS LÍNEAS DE ACTUACIÓN PARA PROMOVER EL ACCESO AL EMPLEO PÚBLICO DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL

- El objetivo es alcanzar el 2% de personas con discapacidad intelectual igual o superior al 33% trabajando en la Administración General de Euskadi y los organismos autónomos
- El Gobierno Vasco garantiza, así, su derecho al trabajo en condiciones de igualdad de trato y no discriminación

El Consejo de Gobierno, celebrado hoy, ha aprobado las líneas generales de actuación para promover y garantizar el acceso al empleo público de las personas con discapacidad intelectual. El objetivo es cumplir la reserva del 2% de plazas públicas para personas con discapacidad intelectual igual o superior al 33% en la Administración General de Euskadi y los organismos autónomos.

En el marco del "[Plan Estratégico de Empleo 2020](#)", el Consejo de Gobierno quiere, con estas líneas de actuación específicas, dar cabida en la Administración Pública Vasca a las personas con discapacidad intelectual y garantizar su derecho al trabajo en condiciones de igualdad de trato y no discriminación.

LÍNEAS DE ACTUACIÓN

Las medidas aprobadas hoy suponen una actuación integral que abarca todo el proceso: desde la identificación de los puestos de trabajo más adecuados, la adaptación del proceso selectivo, hasta la recepción, orientación y tutela cuando ya estén en sus puestos de trabajo. En concreto, son 8 líneas específicas de trabajo:

- ✓ Colaboración con las asociaciones que trabajan con estos colectivos para promover su acceso al empleo público y su plena integración laboral.
- ✓ Análisis de los puestos de trabajo adecuados al perfil, necesidad de adaptaciones y ajustes a realizar en el puesto.
- ✓ Creación de puestos de trabajo de adscripción exclusiva para este colectivo a través de la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo (RPT).
- ✓ Diseño de procesos selectivos adecuados a las necesidades específicas del colectivo.
- ✓ Convocatoria de una bolsa de trabajo para la cobertura temporal de los puestos de trabajo.
- ✓ Diseño de la fase inicial de formación, acompañamiento o tutorización de las personas que acceden a los puestos de trabajo.
- ✓ Adaptación de la normativa reguladora de las bolsas de trabajo.
- ✓ Oferta de empleo público y convocatoria de los procesos selectivos para su cobertura definitiva.

Desarrollo Económico e Infraestructuras

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA AYUDAS POR 3,4 MILLONES PARA EL SECTOR AGROALIMENTARIO Y FORESTAL DURANTE 2019

- Los recursos están destinados a financiar inversiones en el sector vitivinícola, propiciar el asociacionismo y fomentar la apicultura
- Forman parte de la política del ejecutivo autónomo tendente a mejorar la condiciones de trabajo del sector primario y la competitividad de toda la cadena de valor de la alimentación

El Consejo del Gobierno Vasco ha aprobado tres órdenes de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras por la que se convocan ayudas para el sector agroalimentario y forestal. En conjunto, el montante se acerca a los 3, 4 millones de euros para el año 2019. El mayor importe es el destinado a aquellos proyectos de inversión en el sector vitivinícola, y para cuya financiación se destina la cantidad de 2.800.000 euros.

Podrán ser beneficiarias de esta ayuda las empresas vitivinícolas que acrediten haber participado en las convocatorias 2018 y 2019 del programa OCM vino inversión.

Financiación para agrupaciones

Asimismo, en el Consejo también se ha aprobado la Orden por la que se convocan para el año 2019 las ayudas incluidas en el Programa de Desarrollo Rural de Euskadi 2015-2020 destinadas a la creación de agrupaciones u organizaciones de productores agrarias y forestales y sus federaciones.

Para la financiación de las ayudas previstas para este año se destina la cantidad de 500.000 euros.

Sector apícola

Por último, en la misma reunión se ha aprobado la orden de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras por la que se destinan ayudas al sector apícola en la Comunidad Autónoma del País Vasco, que contarán para el año 2019 con un importe de 50.930 euros con cargo el FEAGA.

Hacienda y Economía

EL GOBIERNO VASCO CONTRATARÁ DE FORMA CENTRALIZADA LA ENERGÍA ELÉCTRICA GENERADA AL 100% A PARTIR DE FUENTES DE ENERGÍA RENOVABLE

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la contratación centralizada del suministro de energía eléctrica, generada en un 100% a partir de fuentes de energía renovable, para diversos puntos de suministro de la Administración General de la CAE y su sector público con el objetivo de promover una Administración Pública Vasca energéticamente más eficiente y sostenible y, procurar una gestión más racional de la contratación del suministro de la energía eléctrica.

El gasto correspondiente a esta contratación asciende a un total de 73.507.586 euros, con la siguiente distribución plurianual:

2020: 36.753.793 €.

2021: 36.753.793 €.

La Estrategia Energética de Euskadi 2030 quiere promover una Administración Pública Vasca energéticamente más eficiente y sostenible, y como una de las medidas de ahorro frente al gasto energético, procurar una gestión eficaz a la hora de la contratación del suministro de energía eléctrica, considerando además que el consumo de energía eléctrica en las administraciones vascas representa, aproximadamente un 30% del consumo del sector servicios de Euskadi.

En definitiva, la compra centralizada de energía eléctrica constituye el instrumento adecuado para optimizar los precios que asume el sector público de la CAE en sus edificios e instalaciones.

Desde 2008, la Administración Pública Vasca ha incorporado en el objeto del contrato el suministro de energía procedente de fuentes renovables siendo hoy día condición especial de ejecución el suministro del 100% de energía renovable.

Salud

EL DEPARTAMENTO DE SALUD DESTINA 79.000 EUROS EN AYUDAS A ORGANIZACIONES PROFESIONALES, ASOCIACIONES Y ENTIDADES CIENTÍFICAS DEL ÁMBITO DE LA SALUD PARA FORMACIÓN DE PROFESIONALES SANITARIOS

El Consejo de Gobierno, a propuesta del Departamento de Salud, ha aprobado hoy la concesión de ayudas por un importe de 79.409 euros destinados a subvencionar actividades formativas y de difusión científica sanitarias que se celebren en Euskadi durante el 2019 y a la constitución y funcionamiento de organizaciones profesionales y entidades científicas de especialidades sanitarias para la formación continua de profesionales de la Salud.

El Departamento de Salud considera importante colaborar con organizaciones profesionales y asociaciones sin ánimo de lucro del ámbito de la salud así como a entidades científicas sin ánimo de lucro de especialidades sanitarias que faciliten a las y los profesionales de la salud formación y actualización técnica, ya que la capacitación del personal sanitario y su participación en procesos continuos de formación, cobra una singular relevancia en una correcta atención sanitaria a la población y mejora la salud y el bienestar de las personas afectadas por enfermedades

De este modo, estas ayudas irán destinadas a financiar gastos derivados de:

1. La organización de reuniones científicas, entendiendo por tales los congresos, simposios, jornadas, seminarios y conferencias y organización de cursos y talleres dirigidos a profesionales de la salud, que se realicen durante este año en la CAPV, con una dotación económica de 47.645 euros.

2. La constitución o el funcionamiento de organizaciones profesionales, asociaciones sin ánimo de lucro que desarrollen su labor en el ámbito de la salud, y entidades científicas de especialidades sanitarias sin ánimo de lucro, con domicilio oficial en la CAPV, que faciliten a sus profesionales formación y actualización técnica o fomenten la investigación sanitaria, con 31.764 euros.